



## Altxor bat

PERLAK taldearen kantuak entzun ditudanean poztu egin naiz. Estimatzekoa eta txalotzekoa baita taldeki-deen etorria, ausardia, bizitasuna eta naturaltasuna, eta egiten dutena Euskal Herriko musikaren munduan ohikoa ez izatea; zerbait desberdina edo berezia egitea, alegia.

Kantuek alaitasuna eta bizipoza transmititzen didate, nahiz eta giroak hainbatetan apur bat ilunak izan. Horren harira, “Tximeleten udako egun bat bezalakoa izan beharko luke gure bizitzak”, CDan idatzita ageri da Perlak izenaren ondoan.

80ko hamarkadako post-punk aireak suma daitezke Perlak taldearen kantuetan. Kantuek indarra badute. Erritmoak, oro har, erdi denborakoak dira, eta doinueta ukitu ilun bat antzeman daiteke, baina doinu koloretsuak dira. Hori lortzeko, teklatuak asko laguntzen dute, teklatu bidez kantuak giro bereziz jantzi baitituzte.

Melodiak atseginak dira, nire gusturako. Abeslariak ondo kantatzen dute, eta denek beren musika tresnak ongi jotzen dituzte, birtuosismo eta konplikazio handirik behar izan gabe, soberan egon litezkeen apaingarriak behar izan gabe, beren kantuak egiteko, *Perlak* kantuak. Izan ere, taldekideek kantu bat egiteko gauza gehiegirik ez dutela behar ematen du: imajinazioa, grina eta nota batzuk besterik ez.

Hitzak entzutean gogoeta egiten hasten naiz. “Letrek pentsarazi egiten dute. Zerbait gaingitu duzula dirudienean eta horretatik asko ikasi duzula ematen duenean, berriz etortzen da zartateko bera. Existenzialista puntua dute letrek”. Taldekideek

beren hitzen gainean hori esan zuten diskoaren aurkezpenaren bezperan, apirilean.

Perlak taldea Zarauzkoa (Gipuzkoa) da. Ilargi Agirre (bateria, koruak), Maite Martiarena (ahotsa, gitarra, teklatuak), Oihane Abarrategi (ahotsa, gitarra, teklatuak) eta Patxi Agirre (ahotsa, baxua, teklatuak) dira taldekideak. 2013an elkarrekin jotzen hasi ziren, eta diskoko kantuak azaroan Mungiako (Bizkaia) Gauda estudioan grabatu zituzten.

Grabazio on bat egin dute, diseinu lana ere txukun egin dute, eta lan polit bat osatu dute. Aitor Abio produkzioaz arduratu da, Jon Asier Zubelzu masterizazioaz, eta nahasketak bien artean egin dituzte. Kevin Baumanek eta Nagore Etxabek argazkiak egin dituzte, eta Nagore Etxabek berak eta Xabier Lertxundik diseinu lana burutu dute.

Perlak taldeko kideek elkarrekin entseatzen urtebete eskas daramate, baina jotzeko erraztasuna sumatzen zaie. Beren kantuak jotzen ederki pasatzen dutela nabari da, eta hori ere aise egiten dutela ematen du. Beren lehen lana oso gustura entzuten dut. Zazpi kantu dira, eta CD osoa arin entzuten da. ■



*Perlak*

*Perlak*

Autoekoizpena, 2014

Joxi Ubeda

